

# 20 >

## EKINTZA, ERALDAKETA SOZIAL ETA PERTSONALA BULTZATZEKO ETIKA OINARRI HARTUTA

### Arlo orokorra

- 1 >** **Maiatzaren 7an mahai-inguru bat antolatu zen San Telmo Museoan** honako izenburupean: **Beraiek eta gu?: Islama gure gizartean, hausnarketa etikoak**. Bertan parte hartu zuten Zaragozako Unibertsitateko Zuzenbidearen Filosofian Katedradun Maria Elozegi Itxasok, eta Madrilgo Unibertsitate Autonomoko Mundu arabiar eta islamikoaren soziologiako irakasle den Gema Martin Muñozek. Aretoa bete egin zen eta oso balorazio positiboak jaso ziren.
- 2 >** Baketiken webgunea goitik behera berritzeko lanetan hasi gara, edukien aurkezpena eta irisgarritasuna hobetze aldera. **Webgune berria urrian** aurkeztea da asmoa, hamargarren urteurrenaren harira.

## Bake eta bizikidetzaren saila

- 3 >** **2016ko ekainaren 6tik 8ra bitartean Bilboko Itsas Museoan Bizikidetzaren, Bakea eta Giza Eskubideak jardunaldiak** antolatu zituen **Giza Eskubide eta Bake hezkuntzaren Foroak**. Egun bakoitzean arlo bat landu zuten adituek, modu monografikoan, eta aldi berean praktika onen adibideak ezagutu ahal izan ziren.
- 4 >** **Mugen Gaietarako erakundearekin dugun lankidetzaren** baitan, Erdialdeko Amerikako bakearen aldeko ekintzaileen esperientzia Lasarte-Oriako eta Elgoibarko herritarren Foroekin konpartitzeko aukera egon da hainbat bileretan. Kolaborazio honekin jarraitzeko asmoa berretsi da berriki.
- 5 >** Gipuzkoako Foru Aldundiak jakitera eman du udalei bake eta bizikidetzaren inguruko proiektuak sustatzeko emango dizkien diru-laguntzen gaineko ebazpena. Baketik eskuz esku lan egiten du laguntza horiek eskatu dituzten hainbat udalekin. Zehazki, ikasturte honetan, **13 udalekin lan** egingo du Baketik.
- 6 >** Baketik Gogora, Eusko Jaurlaritzaren Memoriaren Institutuko proiektu berriari parte hartzen jarraitu du, **Memoriaren Plaza** izenekoan, hain zuzen. Kasu honetan **Donostian** izan da, programaren bi ekitaldi nagusienak antolatu eta dinamizatzeko lanak eginez. Batetik, **alkate-ohi eta gaur egungo Alkatearen mahai-inguru** bat, zeinetan aretoa bete egin zen. Bestetik, **memoriaren inguruko elkarrizketa dinamika bat antolatuz; bertan 130 lagunek hartu zuten parte**.
- 7 >** Apirilaren 16tik 21era Bake eta Giza Eskubideen Foroak Belfast eta Derryra (Ipar Irlanda) antolatutako bidaiari parte hartu du Baketik. Ekimen honi esker, hango bake elkarrizketa eta berradiskidetzaren esperientziak ezagutu dituzte Foroko kide diren erakundeek, nork bere herrialdean egiten duen lana aberasteko helburuarekin.
- 8 >** Baketik lanean jarraitzen du Nafarroako Gobernuarekin bake eta bizikidetzaren arloan programa eta ekintza zehatzak martxan jartzeko asmoz.

## Elkartasun saila: Izeba proiektua

- 9 >** Joan den maiatzaren 6an ekin zitzaion **Izeba berriak lortzeko komunikazio kanpainari**. Prentsaurreko bat egin zen, eta bertan parte hartu zuten, Baketik gain, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikarako Diputatu Maite Peñak eta programako boluntario batek. Gainera, maiatzean informazio bilerak egin dira Bergaran, Tolosan eta Donostian. Baketik kanpaina hau oso modu positiboan baloratzen du, izan ere lortu egin da zeukan helburua: Izeba Proiektuan parte hartzeko zain zeuden zaintzapeko 20 adingabeentzat 20 osaba/izeba edo laguntza-familia lortzea.
- 10 >** Izeba Proiektuak aurtengo duen helburuetako bat da **proiektua sistematizatzea**. Maiatzean zehar programa martxan egon den urte hauetako informazio guztia biltzen aritu gara, horren gaineko hausnarketa kritiko bat egiteko. Ekainean, egin beharreko landa-azterketa diseinatu da, izaba/osabei eta ilobei egin beharreko elkarrizketak eta programan parte hartzen duten profesionalen zuzendutako galdeketa.
- 11 >** **Deustuko Unibertsitateak** urrirako antolatu duen **Gizarte Laneko III Nazioarteko Biltzarrean, Gizarte Lana, loturak sortzeko artea** izenekoan parte hartzea erabaki da eta Izeba Proiektuaren sistematizaziotik lortutako emaitzen txostena aurkeztuko da bertan.
- 12 >** Maiatzaren 21ean **Izeba Proiektuko Partaideen XI. Topaketa** egin zen Larraitzen (Abaltzisketa) eta 43 lagun elkartzu ziren bertan, Izeba eta iloben artean jolas giroko eguna igarotzeko. Kasu honetan, Txindoki inguruan ibilaldi batekin ekin zitzaion egunari eta, ondoren, nahi izan zutenak bertako abentura parke eta tirolinetan ibili ziren. Topaketa amaitzeko han inguruko jatetxe batean elkartzu ziren bazkaltzera.
- 13 >** Maiatzaren 19an programan parte hartzen duten **persona eta familientzako formakuntza** saio bat egin zen, **Laguntza boluntarioko familiak, erresilientziako tutore** izenburupean. Formakuntza saio hau Jose Luis Gonzalo Marrodan psikologo kliniko eta psikoterapeutak eskaini zuen.

**14 >** Izeba Proiektuaren komunikazio kanpaina dela-eta, ikus-entzunezko material berria sortu da. Izeba Proiektuan parte hartzen duten kide desberdinen esperientzia kontatzen duten **sei bideo-lekukotza** egin dira: bi Izeba familia, zaintzapean egon izandako gazte bat, Aldundiko teknikari bat, harreraretxeetako sistemako langile bat eta Izeba Proiektuko Baketikeko koordinatzailea. Hau da bideoen lotura: <http://bit.ly/29nHgr0>

## Antzerki Forumaren saila

**15 >** Azken urteotan balorazio onena jaso duen eskaintza, eskola jazarpenaren aurrean balore eta jarrera etikoak bultzatzen dituen izan da. 2013tik hona 79 eskolek hartu dute parte, eta 5.000tik gora ikaslek. Une honetan 19 eskola daude itxaron zerrendan. Ekainean, hurrengo ikasturterako **eskaera egiteko epea zabaldu** du Baketikek.

**16 >** Hiruhileko honetan, **Donostia 2016 Kultur Hiriburutzaren** hitzarmenaren baitan egiten den **Eta hik zer? antzezlanaren 18 lekutan** aurkeztu da, besteak beste, Tolosa, Bilbo, Donostia, Elgoibar, Arrasate eta Irun. Antzezlan hau bera **Nafarroako Gobernuak giza duintasunaren errespetua eta bake kultura sustatzearen garrantziaz hausnartzeko antolatutako Bizikidetza ereiten, begiratu bat artearen bitartez bake eta bizikidetza jardunaldietan** ere taularatu zen.

## Bideoteka saila

**17 >** Urtero bezala, bideotekan sartzeko **hamar pelikula berri aukeratu dira** eta gida didaktikoak egiten gabiltza. Zehazki pelikula hauek aukeratu dira: 12 años de esclavitud, Inside out, Amama, Sin retorno, Lasa eta Zabala, Cobardes, ¿Y ahora adónde vamos?, La educación prohibida, La lista de Schindler eta El niño con el pijama de rayas.

**18 >** Bideotekaren barnean atal berri bat sortzeko lanak hasiak daude: **Berradiskidetzea lantzen / Hacia la reconciliación** izenburupean, euskal kasuarekin zerikusia duten dokumental eta filmak bilduko dira, dohainik maileguan eskainiko direnak gida didaktikoekin batera. Besteak beste, hauek dira aukeratutakoak: Asier eta biok, Reconciliación, El valor de la autocrítica, Hablan los ojos, Glen Cree, Lluvia seca, El triángulo de la muerte, Lasa eta Zabala, La pelota vasca eta Barrura begiratzeko lehiak.

## Formakuntza saila

**19 >** Datorren ikasturtean Baketikek berriz ekingo dio jendearentzako formakuntza **ikastaroak** eskaintzeari. **Irailtik 2017ko ekainera** bitartean emango dira ikastaroak eta iraillean bertan jakinaraziko da programazioa.

**20 >** Baketik hainbat erakunderekin egin ditu formakuntza ikastaro hauek, Polizia eta Larrialditarako Euskal Akademian, besteak beste.